BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3260

20/2014, EBAZPENA, uztailaren 7koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia, Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri Hondarribi, Orio, Donostia, Getaria, Bermeo eta Mutrikuko kirol portuen tasen bilketa kudeatzeko gomendioa baimentzekoa, argitaratzea xedatzen den.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, ekainaren 17an egindako bilkuran, Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri Hondarribi, Orio, Donostia, Getaria, Bermeo eta Mutrikuko kirol portuen tasen bilketa kudeatzeko gomendioa baimentzea erabaki zuen, eta erabaki horri behar den zabalkundea emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri Hondarribi, Orio, Donostia, Getaria, Bermeo eta Mutrikuko kirol portuen tasen bilketa kudeatzeko gomendioa baimentzeko erabakia. Ebazpen honen eranskinean dago erabaki hori.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 7a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 7KO 20/2014 EBAZPENARENA

Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri Hondarribi, Orio, Donostia, Getaria, Bermeo eta Mutrikuko kirol portuen tasen bilketa kudeatzeko gomendioa baimentzeko erabakia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 10.32 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua), eskumen esklusiboa dauka portuen arloan, Espainiako Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.

Maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez, Estatuak EAEri transferitu zion Euskal Autonomia Erkidegoan dauden portuen kudeaketa, Pasaiakoarena eta Bilbokoarena izan ezik, interes orokorrekotzat hartzen baitira.

Era berean, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 10. artikuluan ezartzen denez, turismoa eta kirola eta aisia eta olgeta EAEren eskumen esklusiboak dira.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskumen esklusiboa dauka Euskadiko kirol portuen alorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko Lehendakariaren 20/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ezartzen denez, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari esleitzen zaizkio portuen eta itsas gaien gaineko eginkizunak eta jarduera-esparruak, eta, era berean, sail horri atxikitzen zaio Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietate publikoa.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 14. artikuluaren arabera, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari indarreko araudian aurreikusitako portu zerbitzuak emateko eginkizuna dagokio, antolamendu juridikoan araututako kudeaketaren bitartez.

Bestalde, tasen bilketaren kudeaketa, borondatez ordaintzeko epe barruan, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagokio, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 40.2 artikuluarekin eta irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen Testu Bategineko 18. artikuluarekin bat etorriz.

Era berean, Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietatea sortu zen Euskadiko kirol portuetan zerbitzu publikoa modu deszentralizatuan eskaintzeko asmoz. Sozietatea sortzeko dekretuan azaltzen denez, ekainaren 6ko 105/2000 Dekretuan, sozietatea sortu zen «kirol portuak eta atxikitako instalazioak planifikatu, sustatu, garatu eta ustiatzeko».

Halaber, Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berezko bitartekoa edo zerbitzu teknikoa da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera.

Beste alde batetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 40.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, tasen bilketaren kudeaketa erakunde publikoei zein pribatuei esleitu ahal izango zaie. Kudeaketa hori esleitzeko, artikulu horrekin bat etorriz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da eta EHAAn argitaratu beharko da.

Hori dela eta, Euskadiko Kirol Portua, S.A.k Hondarribi, Orio, Donostia, Getaria, Bermeo eta Mutrikuko kirol portuetan eskaintzen duen zerbitzuaren funtzionamenduari bere horretan eusteko eta interes publikoak lortzeko orduan eraginkortasun handiagoa lortzeko asmoz, eta hala egiteko arrazoi tekniko eta materialak daudelakoan, sozietate horri eman nahi zaio portuotako tasen bilketa kudeatzeko gomendioa.

Horren arabera, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta bilkuran eztabaidatu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

«Lehenengoa.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 40. artikuluarekin bat etorriz, Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri Hondarribi, Orio, Donostia, Getaria, Bermeo eta Mutrikuko kirol portuen tasen bilketa kudeatzeko gomendioa baimentzea, erabaki honen eranskinean jasotzen diren baldintzen arabera.

Bigarrena.– Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Zerbitzu zuzendariaren ebazpen bidez, arlo bakoitzean eskumena duten zerbitzuek txostena egin ondoren, erabaki honetan jasotako baldintzen arabera, kudeaketa gomendioaren gaineko aldiak, epeak edo beste alderdi batzuk zehaztuko dira, administrazio-organo eskudunek eskatutako informazio administratiboaren, ekonomikoaren eta zerga eta kontabilitate arloko informazioaren transmisio egokia egiteko.

Hirugarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak erabaki hau eta eranskina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 40. artikuluan adierazitako moduan.

ERANSKINA:

Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietateak kudeatutako portuetan portu-tasen bilketa kudeatzeko gomendiorako aplikazio-araubidea.

Lehenengoa.– Xedea.

Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri Hondarribi, Orio, Donostia, Getaria, Bermeo eta Mutrikuko dartsena eta kirol portuetako tasen bilketa kudeatzeko gomendioa ematen zaio.

T-5 («kirol eta aisialdirako ontzien zerbitzua»), T-8 («energia-produktuen hornidura») eta T-9 («askotariko zerbitzuak») tarifen borondatezko epeko bilketaren kudeaketara mugatzen da gomendioa.

Tarifa horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan ematen diren zerbitzu orokor eta bereziengatik ordaindu beharreko tasan daude sartuta. Tasa hori irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategineko 192. artikulutik 197.era arteko artikuluetan dago araututa.

Bigarrena.– Araubide juridikoa.

Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietate publikoari agindutako bilketa-jarduerak honako xedapen hauen arabera arautuko dira.

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina.

Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorra, abenduaren 17koa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamendua, abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuaren bidez onartua.

1998ko uztailaren 23ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko eta horren erakunde autonomoetako tasak likidatzeko oinarrizko ereduak eta prezio publikoen ordain justifikagiriak onartzen dituena.

Eta, orokorrean, diru-bilketaren kudeaketaren alorrean aplikatzekoa den indarreko araudia.

Erabaki honetan ezarritakoa.

Hirugarrena.– Egin beharrekoak.

1.– Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri eginkizun hauek dagozkio:

Euskadiko Kirol Portua, S.A.k kudeatutako portuetan, portu-tasak ezartzea eragiten dituzten amarratze baimenak prestatzea.

Lehenengo klausulan jasotako portu-tasei dagozkien likidazioak prestatzea, baita, hala badagokio, igoerak, hobariak, murrizteak eta salbuespenak aplikatzea ere, eta, horretarako, zerga-kuota zehazteko behar diren zerga-kudeaketarako jarduketa guztiak egitea.

Portu-tasen eta, hala badagokio, sortutako interesen bilketa egitea, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren izenean.

Tasen subjektu pasiboek, agindutako jarduerekin lotuta, aurkeztutako dokumentazioa hartzea eta izapidetzea (esate baterako, zatikatzeko eta geroratzeko eskabideak, erreklamazioak eta errekurtsoak), bai eta ebazpen-proposamenak bidaltzea ere Ingurumen eta Lurralde Politika Sailera.

Tasen subjektu pasiboei Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko administrazio-organo eskudunen egintza eta erabakien berri ematea, aurreko puntuetan adierazitako zergen arloko jarduketei buruz.

Sarrera egiteko epeak eta borondatezko epea amaituta, ez bada zerga-zorra ordaindu, Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietate publikoak horren berri emango dio Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, zerga-bilketako prozedurarekin jarraitu ahal izateko datuekin batera, eta, horrela, betearazpen bidea has dadin.

2.– Orokorrean, Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietateari aurretik adierazitako jarduketa guztien eta portu-tasen kudeaketaren ondorioz sor daitezkeen jarduketa guztien kudeaketa egiteko gomendioa egiten zaio.

3.– Jarduketa horien gaineko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esku egoten jarraitzen du; izan ere, arlo horretan hartu beharreko egintza juridikoak adieraziko ditu.

Laugarrena.– Euskadiko Kirol Portua, S.A.k bete beharreko formalitateak.

Agindutako tarifetatik bildutakoaren fakturazioei buruzko eguneko liburu bat egingo du, eta bertan zehaztuko ditu aplikatutako kuotak eta tarifak, bai eta igoerak, hobariak, murrizteak eta salbuespenak ere, subjektu pasiboak identifikatuta.

Hileko laburpen bat egingo du, eta bertan adieraziko ditu sozietateak eskainitako zerbitzuak, BEZa daukatenak, honako hauek zehaztuta: portua, lurralde historikoa, zerga-oinarria, balio erantsiaren gaineko zergaren tasa eta kuota.

Aldian-aldian (ezartzen den aldizkakotasunarekin), egindako kudeaketa-, likidazio- eta bilketa-jarduketen gaineko azalpen-txosten bat egingo du.

Kudeatzeko gomendioa betetzean zehatz bete beharko da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa; izan ere, Euskadiko Kirol Portua, S.A.k behar diren neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartuko ditu datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datuok aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietan baimenik gabe sartzea galarazteko.

Euskadiko Kirol Portua, S.A.k modu autonomoan antolatuko ditu zerbitzua eskaintzean kudeaketa eraginkorra bermatzeko behar diren baliabide material eta pertsonalak.

Bosgarrena.– Konpentsazioa.

Euskadiko Kirol Portua, S.A.k, bilketa kudeatzeko gomendioa betetzeagatik, T-5, T-8 eta T-9 tarifetatik bildutakoaren ehuneko 10a jasoko du, tarifa horiei dagokien balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa kenduta.

Horretarako, Euskadiko Kirol Portua, S.A.k dagokion aldian lortutako bilketari dagozkion fakturak emango ditu.

Seigarrena.– Funtsen likidazioak aurkeztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari.

Euskadiko Kirol Portua, S.A.k, aldian-aldian, tasetatik bildutako zenbatekoen likidazioa egingo du, eta, horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren eskubideetarako ezarritako kontabilizazioa tramitatzeko prozeduraren arabera dagokion dokumentazioa aurkeztuko du, tarifa horiek eta geroratze edo zatikatzeen interesek jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zergaren kuoten zenbatekoa barne, inolako zenbatekorik deskontatu gabe, behar ez diren sarreren itzulketak izan ezik, hala dagokionean.

Likidazioarekin batera, Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietateak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailera bilketako mugimenduen xehetasuna bidaliko du.

Zazpigarrena.– Kudeatzeko gomendioaren indarraldia.

Agindu hau indarrean izango da sinatzen den egunaren biharamunetik 2014ko abenduaren 31ra arte, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako zergapeko egitateetarako izango ditu ondorioak.

Epe hori bukatzean berez luzatutzat joko da urtebeteko ondoz ondoko aldietarako, salbu eta arauetan oinarriekin bat ez datorren aldaketarik balego.